

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Fariseuen arrosak

GYSBERT VERBEEK lore-zaleak (lore-hazlea esan beharko ote nuke?) lore simple gorri-laranjak jori ematen zituen arrosa berria lortu zuen 1958an. Bizitoki zuen Aalsmeer hiria ordutik hona ederki aldatu da. Arrosa horri "Miracle" izena eman zion, bere herriari gertatuko zitzaiona igarriz agian...

Aalsmer ezaguna da Herbehereetan. Garai batean zuhaitz muintegiak ugaritu ziren bere lursail zelaietan. Gero marrubi ekoizpena zabaldu zen eta hauekin batera 1880an loreak, moztu eta sortaka saltzeko loreak ekoiztera jo zuten bertako lurrari etekina kentzeko asmotan. Ekoizpen hauek denak alatan eta gabarratan Amsterdamera eramaten zituzten saltzera. Ekoizle onak izan eta landare eta, inondik ere, hauen fruitu onak eskaintzen, erosleak gabarren zain egon ordez Aalsmer bertara joaten hasi baitziren erosketak lotzera. Bertako kafetegietan egiten zituzten enkante eta erremateak, kandelak. Ekoizleentzat bezala erremategi-entzat irabazpide errentagarri bihurtu ziren loreak herrian.

Aldamenean Schipolgo aireportua izateak lore trantanteen emana ugaritu zuen, baita honetarako bereziki diseinatutako eraikin erraldoi bat egin ere. Erraldoia eta egokia, ustez. Hainbestearainoko fariseu pila, laster ziren kabitu ezinik. 1999an sekulako tratu-etxe



WWW.FLOWERSOFTHEWORLD.COM

berria jaso behar izan zuten, 999.000 metro koadrokoa, alajaina; munduko merkataritza-etxe handiena. Geroztik munduko loreen hiriburua deitzen zaio. Egunero goizeko seietan izaten den lore eta landare errematea ikusgarria da. Turistak erakartzen dituen ikuskizuna. Urtean 400 milioi idi-bihotz esportatzen da bertatik. "Miracle" bezalako arrosa aldaera guztietatik, aldiz, miliar batetik gora ale... Era berean, mundu osoan ekoizten den landareen gehiengo bertara etorri, hor saldu-erosi eta berriro munduko beste edozein tokitara joango da. Tratuaren habia da. Fariseuen loreak.

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, sekula gertatu gabeko arazoa daukat lekekin. Landareak ondo atera ziren, baina pixkanaka horitzen eta ihartzen doaz gehienak, eta ez da hezetasun eskasia. Zurtoinak azala besterik ez du, hutsa dago, ihartua. Ateratako biren zainetan zomorro handi xamarrak topatu ditut, 1,5 zentimetro luze, bi milimetro zabal, gogorak eta ehunka hanka dituzte. Zulo batzuetan berriz erein eta atera dira, baina beldur naiz, denak atera eta berriz ereinez gero, antzekoa gertatzeaz.

Luken Goia (Zubieta, Gipuzkoa).

Iepa Luken, bi arrazoi aurreikusten ditut: batetik, simaur gehiegi edota simaur berria, behar bezala ondu gabea. Lekaduna izanda, nitrogenoa biltzen du airetik lurrera eta simaur asko badago ezin bizi da behar bezala... Bestetik, ureztaketa gehiegizkoa, edo ordu txarrean, eta landarearen lepo alde egosi egiten da. Plastikoa erabiltzen denetan areagotu egin daiteke. Konponbide txarra du horrek. Plastikoa edo ehun geotermikoa altxatzeak lagunduko luke. Kristoren lana. Altxatuz gero karea bota eta ureztatze on-on bat. Ez da soluzio erraza...

Babeslea: Alkartasuna



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 6 - 26. lokala

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com

